

Estonia: Mati Hint-ekin elkar hizketa

Mati Hint hizkuntzalaria da eta Tartuko Unibertsitateko irakaslea. Lan ugari egin ditu soziolinguistikaz eta bereziki errusiera-estoniera interferentziak aztertu ditu.

Galdera: Zein da estonieraren ezagupen maila? Hau da, biztanlegoaren zein portzentaiak hitz egin dezake estonieraz?

Erantzuna: Estoniarren %100a estonieraz mintzatzen da eguneroko bizitzan eta soilik estoniera da dominatzen duten hizkuntza; gutxi gorabehera 1.000.000 pertsonako multzoa. Estoniarrak ez direnetatik %20ak (600.000 pertsona inguru) estonieraz hitzegiten dute, batzuk beste batzuk baino hobeto. Guztira 1.110.000 eta 1.120.000 pertsona inguru dira Estonian estonieraz mintzatzen direnak eta gutxi gorabehera 480.000 dira estoniera gutxi edo batere ezagutzen ez dutenak. Orokorrean, gaur egun, biztangoaren %70ak estoniera hitzegiten du.

G: Zenbat dira elebidunak? Ba al da ezberdintasun aipagarririk hiria eta nekazal zonaldeen artean?

E: Errusieraz mintzatzen diren 120.000 pertsonak elebidunak dira, eta gutxi gorabehera estoniarretatik %25ak errusieraren ezaguera ona dauka. Orokorrean, biztanlegoaren %25a elebiduna da, nahiz eta normalki hirietan bizi diren estoniarrek errusieraren ezaguera txiki bat baduten. Landa inguruneetan errusieraren ezaguera eskasa da, biztanlegoaren gehiengoak estoniarra delarik (%80-95a zonaldeen arabera).

G: Estonian lurralde zatiketa dago ala legea bera da lurralde osorako?

E: Estoniako Errepublikak ez du zatiketarik naziotasunen edota erabiltzen diren hizkuntzen arabera; Lege bera da alde guztietarako balio duena eta alde guztietan indarrean dagoena. Baina praktikan, Narva, Sillamae, eta Kohtla-Järve hirietan (estoniako ipar-ekialdea), bertako agintariek errusiera erabiltzen dute. Hiri horietan biztanlego ia oso osoa errusiarra da (%95-99a Narva eta Sillamaen eta %80a Kohtla-Järven). Mendebaldeko kostaldean dagoen Paldiski armadako basea Errusiar ejerzitoaren esku dago erabat.

G: Zer esango zeniguke inmigrante errusiarrei buruz? Nolabaiteko integrazio kulturalarik ba al dago? Elebiduntzen al dira?

E: 90.eko hamarkadara arte errusiar etorkinetarik askok ez zuen estoniera ikasteko interesik batere, nahiz eta zenbait ikastetxe errusiarretan serioski irakas-ikasten zen. Orain legeak estonieraren ezagutza galdatzen dio estatuko nahiz zerbitzu publikoko

edonori. Hiritartasun Legeak etorkin guztiak estonierako azterketa gainditzeko esijitzen du (1.500 hitz eta gramatikari buruzko azterketa da hori). Errusiarrek, baldin eta beren arbasoek 1.940. urterako estoniako naziotasunik ez bazuten eta estoniar naziotasuna lortu nahi badute estoniera ikasi behar dute.

G: Eskoletan zein hizkuntzaz irakasten da?

E: Eskolan bi hizkuntzak erabiltzen dira ikasketa ertainak amaitu artean (12 urtera arte). Eskola horietan hezkera erabat estonieraz edo erabat errusieraz ematen dute (gutxi gorabehera %62 dira estonieran egiten dutenak eta %38 errusieran). Goi mailako hezkuntza (unibertsitate maila) estonieraz jasotzen da batez ere (100 espezialitate gutxi gorabehera). Arlo batzuetan hezkuntza bi hizkuntzetan ematen da (20-25en bat espezialitate). Etorkizunean errusiarrek estonieraren ikasketa zabala izango dute unibertsitateko ikasketak hasterakoan, ondoren estonieraz ematen diren ikasketa arruntak jarraituko dituzte.

Errusiarrek bizi diren tokietan eskola errusiarrek daude; honek aditzera ematen duenez gutxi dira eskola errusiarrek herri txiki eta landako bailaretan.

G: Administrazioak estonieraz ala errusieraz dihardu?

E: Administrazio lokalak estoniera erabiltzen du nonnahi, aurrez aipatu diren hirietan ezik...

G: Urtean zenbat liburu argitaratzen dira estonieraz?

E: Estonieraz 100 bat aldizkari argitaratzen ditugu eta 100 eta gehiago egunkari. Hezkuntza ertaineko (12 urtetaraino) testuliburu guztiak estonieraz daude idatziak (eskola errusiarretan errusiarean idatzitakoak erabiltzen dira). Aldiz unibertsitate mailan errusieraz eta beste hizkuntza batzuetan idatzitako testuliburuak erabiltzen dira giza zientzietako alorretan ezik. 1.000 liburu inguru argitaratzen ditugu estonieraz urtero.

XVII. mendetik gaur arte 100.000 liburu baino gehiago argitaratu dira estonieraz. Aipatzekoa da liburu bakoitzeko ale zenbakia oso altua izan dela tradizionalki: batz besteko 8.000 aletik gora, literatur lanetan 30.000ra arte eta are gehiago entziklopedien kasuan. Era berean 80 hizkuntza baino gehiagotik itzultzen dira obrak, gehienetan jatorrizko hizkuntzatik.

G: Zein hizkuntza erabiltzen da Parlamentuan?

E: Estoniako Parlamentuak estonieraz dihardu; diputatu errusiarrek errusiera erabili dezakete, baina hurrengo Parlamentuak (Abuztuan edo Irailean hautatuko dena) estoniera erabiliko du soil soilik.

G: Nola aritzen dira telebista eta irratiak?

E: Telebista estonieraz aritzen da baina ematen ditu errusierazko berri saioak.

Estoniako Irratiak hiru saio ditu estonieraz eta bat, oso ona, errusieraz. Irrati txikiek estoniera erabiltzen dute nagusiki.

Itzultzailea: Joseba Mintegi